

HERRI MUSIKA ETA DANTZA

Herri Musika Bildumako liburu berriak herri musikaren eta herri dantzaren egoerari buruz 2003 eta 2004an Oartzunen ospatu ziren HM Jardunaldietan egindako gogoetak biltzen ditu

Bildumaren barruan argitaratu zen azkenengo liburuak lehenengo HM Jardunaldietan bertso-laritzari buruz esandakoak biltzen bazituen, oraingo honek bigarren eta hirugarren HM jardunaldietan dantza eta musika herrikoiei buruz esandakoak jaso ditu.

2003an ospatu ziren hitzaldi eta mahai-inguruetan herri musikak eta herri dantzak gaur egun bizi duten problematika aztertu zen zentzu orokorrean. Euskal Dantzarien Biltzarraren laguntzarekin Herri Musikaren Txokoak antolatutako jardunaldi hauetan Iñaki Irigoien, Jose Ignazio Ansorena eta Valladolidetik etorritako Elías Martínez izan genituen hizlari. Hauetako bakoitzak berak egindako azterketa eta esperientziez hitz egin zuen: herri dantzetan erabilitako doinu eta hauek jotzeko soinu tresnez Iñaki Irigoienek, dantza tradizional-etako erritmoak jotzen dituen musikariaz Jose Ignazio Ansorenak eta Valladolid inguruko prozesio-etako dantzez Elías Martínezek. Hasera batean inguru ezberdinetako hizlariak izanik plazaratuko zituzten problematikak ere hala izango zirela pentsa bazitekeen ere, kontra-koa ikusi zen. Herrialde batean zein bestean oso antzeko arazoekin topatzen dira: globalizazioa ote? Hitzaldien ondoren mahai-ingurua etorri zen eta liburuan irakur daitekeenez lau puntu nagusiri nolazpaiteko erantzuna ematen saiatu ziren



Bildumako liburu berriaren azala. HMT

hizlariak, modera-tzaile aritu zen Pedro Elozegi eta entzuleak.

Jorrotutako gaietako bat musikari eta dantzarien arteko harremana izan zen. Ondoren, duda existentzialak erantzuten saiatu ziren. XX. mendean gertatzen zena berdin-berdin egiteak merezi ote duen zen dudetako bat. Bestea tradizioa berritzeak zentzurik ba ote duen. Eta azkenik, herri dantza eta herri musika espektakulo huts bezala planteatu behar ote diren.

Bigarren jardunaldietan parte hartu zuten artean gaiak gehiago lantzea merezi zuela komentatu zen eta hala hirugarren jardunaldiak bigarrenen nolazpaiteko jarraipena izatea erabaki

zen. Kasu honetan, erantzunak topatzen eta bideak irekitzen lagunduko zuela pentsatu azterketa hezkuntza sisteman zentratzea erabaki zen. Hala herri musikak eta herri dantzak hezkuntza sarean duen trataera landu zen. Orduko jardunaldien antolakuntzan aurreko biei ikastolen Federazioa eta Catalunya-ko Generalitatea gehitu zitzaizkien.

Jardunaldi hauetan Euskal Herriko eta Catalunya-ko adituek hartu zuten parte. Euskal Herritik Emilio Xabier Dueñas, Iñaki Eguren, Mendigaña Gorostiaga, Jon Maya, Josu Larrinaga eta Jon Fernandez aritu ziren bertako eskoletan bizi den egoera azalduz. Catalunya-tik berriz, Josep Alba, Joan Serra, Maria Antònia Pujol eta Carme Balagué etorri ziren hango Aula de la Musica Tradicional-en sorrera bultzatu zuten beharrak eta berau altxatzeko egin behar izan zuten lana azaltzen. Guztiek irakaskuntzaren egunerokotasunaz hitz egiteaz gain klaseak aurrera eramateko, erakusteko, behar izaten den materialaz eta haren sorkuntzaz ere hitz egin zuten. Liburuan, hitzaldi eta mahai-inguruetako testuez gain, jardunaldi haiek osatu zituzten ekitaldi praktikoagoak ere ageri dira. Hala, zenbait tallerretako eta erromerietako dokumentu grafi-koak gehitu dira jardunaldi haie-tako bakoitzari dagokion atalaren bukaeran praktikak nola gertatu ziren azaltzeko.

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udako kontzertua

2009ko uztailaren 4an - 18,30tan - HM Txokoan

ORTZADAR FANFARREA

Ortzadar Euskal Folklore Elkarteak Iruñean sortu zen 1974an, aurten, beraz, 35. urtemugako ospakizunetan da taldea. Hasieran dantzari laguntzeko saioekin hasi bazen ere (txistuaz batik bat), berehala ulertu zuen musikak dantzaz aparte bazuela bere ibilbidea egiterik. Honela, hasieratik bertatik fanfarrea izan du ardatzetako bat bere jardunean. Musikariak erabat ama-

Kontzertu honetan Euskal Herriko musika tradizionalen adibide batzuk joko dira: jautzia, jota, porrusalda, kalejira, habanera, zortzikoa,... gure herriko erritmo zenbait. Bestetik, Europako beste herrialdeetako musikaren bat ere interpretatuko da. Gainera, zazpi musikariz osatutako taldea izanen da espresuki arituko dena egun honetan, eta hala, fanfarrearen ohiko irudia ez



teurrak dira: tasun honek berezko kolorea ematen dio egiten den musikari, alde batetik musikari bakoitzak jotzen denari bere ukitua ematen dio eta bestetik, denek elkarrekin borobiltasun bereziko doinuak eskaintzen dituzte. Ohiko eskola ofizialek markatutako ildoetatik urrun eta merkatuak ematen dituen erreferentzietatik at, musika talde honek tradiziozko iturrietatik edan eta edatera ematen du.

Urte andana horien ondotik, jende anitz pasa da taldetik eta arrasto handia utzi dute belaunaldi belaunaldi. Herri Musikaren Txokoaren udako emanaldi honetan saio berezia egingen dute Ortzadar taldeko hainbat musikaririk, eta hori prestatzeko Muthiko Alaiak fanfarreko lagun batzuk izanen dira haiekin batera.

da agertuko; esan nahi baita, kaleko erreperorioaz haratago, emankizuna beraien egunerozkoaz nahiko bestelakoa egingen dugu.

Tresna ezberdinak ikusi ahal izanen dira, gure tradizioaren aberastasunaren adibide; ez da haien azalpen zehatzen erakustaldia izanen, baizik eta, soinu ezberdinen nahasketak ematen duen emaitzaz gozatzeko saioa.

Udako kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.

Prezioa: 15 euro.

CURRO EL DE ESCACENA

Huelvako danbolintero

Curro el de Escacena ezizena hartzen duen musikariaren benetako izena Francisco Gadea Pichardo da. Sortzez Huelvako landazabalean kokatua dagoen Escacena del Campokoa da bera, hiriburutik 60 bat kilometrora eta El Rociotik 30 bat kilometrora dagoen herria.

Artzaina zen bere aitonak heriotzorritz beretzat



egiten zituen gaitekin (Huelvan gaita deitzen diote gure txistuaren antzekoa den flautari) ikasi zuen musika jotzen 10 urte zituenean. Hala, 12 urte zituen danbolintero ofizial moduan Rocioko ermandade bat lehenengo aldiz lagundu zuenean. Aukera hori eman zion ermandadea Palma del Condado deitutakoa izan zen. Geroztik ugari izan dira lagundu dituen ermandadeak.

Gaitari buruzko jakintza sakontzen joan zen eta 18 urte zituenean gaitak eta danbolinak egiten hasi zen. Ordu-arte ezagutzen ziren gaitak zortzidun eta afinazio aldetik motz samar gertzen zirenez hauek hobetzeko helburuarekin zenbait saiakera egin zituen: lanerako tresnak hobetu, ohiko luzerak moztu, zulatzeko otxabua erabili, etab. Horrela, bi zortzidun oso, alterazio guztiekin, emateko gai den gaita lortu zuen.

Gaur egun danbolintero lana irakaskuntzarekin tartekatzen du. Hala, gaita rociera jotzen erakusten du Hinojos eta Escacena del Campoko musika eskoletan bere musika plazaratzeari utzi gabe.

Andaluziako probintzia guztietan jo du eta baita handik kanpora Madrid, Valencia, Extremadura, Salamanca eta Barcelonan ere. Estatutik at danbolinteroeren errepertorioa Marruecosen jo du eta Portugalen dagoen Evora herrian ikastaroak ematen aritu da.

EGITARAUA

Saioan gaita eta danborrarekin jotzen den errepertorio herrikoiko doinuak eta pixkanaka erromerietan ohiko bihurtu diren beste erritmo batzuk entzuteko aukera izango da.

- EL ALBA
- EL TOQUE DEL ROCIO
- SEGUIDILLAS ALOSNERAS
- FANDANGOS DE HUELVA
- SEVILLANAS
- TEMAS ACTUALES, RUMBAS Y BOLEROS

**kontzertu honen
laguntzaileak:**



HERRIKO FESTETAN

Oiartzungo festak hasi dira eta lehenak Arraguakoak izan dira. Haien ondoren iritsi dira Ergoien auzokoak. Ergoiendarrak makina bat bileraren ondoren jai eder askoak antolatzea lortu dute, eta hori laguntzeko eguraldia ere aproposa izan dute. Aurtengo San Antonio jaien egitarauaren barruan herri musikak bere tarteak ere izan du. Hala, San Antonio egunean bertan danborradaren ondoren Juan Mari Beltranek eta Astiasaran anaiek jotako dultzaina eta trikitixa entzuteko aukera izan zuten Auzokaltera hurbil-

du ziren musika eta dantzazaleek. Hurrengo egunean berriz, Oiartzungo HM Eskolako irakasle zein ikasleek jo zuten goiz eresia dultzainero eta danborra, xaramela, panderoa eta kanabera erabili zituzten perkusio-joleekin. Ekainean Ergoien auzoan izan badira HM Eskolako musikariak, hurrengo hilabeteetan izango diren jaietara ere ahal duten neurrian hurbiltzeko asmoa azaldu dute eta oraintxe uztailaren bukaeran izango diren Iturritzko Santiyoei begira jarriak daude.



HM Eskolako irakasle-ikasleak kalejiran Ergoien. HMT

HM ESKOLA EGUNA

Ekaineko lehenengo igandean Oiartzungo HM Eskolaren ikasturte bukaerako kontzertua ospatu zen. Ikasleen artean adin guztietako jendea dugu



Erromerian Lartaun Txistu Taldeko musikariekin. HMT

HM Eskolan eta kontzertuan hori ikusteko aukera izan zuten Oiartzungo Doneztebe enparantzan haiek entzun zituztenek. Hasiera emateko txalaparta saio batzuk jo zituzten ikasleek, ondoren eskolan berriak izan diren txistu eta atabalak entzuteko aukera izan genuen ikasle gazteen eskutik, eta horiei herri perkusioarekin, alboka eta dultzainekin era ezberdinean antolatutako taldeek jarraitu zuten.

Kontzertua bukatu zenerako soinu tresnen musika ez zen beste zerbait ere entzuten hasia zen plazan zegoen jendea eta musikariak elkarrekin bazkaltzera Ibagain elkartera joan ziren.

Hango giro onean, bazkalondoan arratsalderako Lartaun Txistulari Taldeak antolatua zuen erromeriarako motorrak berotu zituzten. Hala, arratsaldeko seiak aldera Aialde kalean zehar alboka doinuekin Doneztebe plazara igo ziren han txistu eta gitarra doinuekin dantza egitera.

Arozenatarrek giro bikaina jarri zuten Kontsejupean eta horren adibidea da lerro hauen ondoan ikus daiteken argazkia. Bistan denez adin guztietako dantzariak bildu zituzten.

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabetetan: bisitari kopurua: 1.112

Antolatutako taldeak: 47

Bisitari kopurua ekainera arte: **21.699**

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabetetan: 10.419

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

www.herrimusika.org

